

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Donemiliagako udalerrian seme-alabak jaio, adoptatu edo harreran hartzeagatik ematen diren laguntzen deialdia jasotzen duen 2019ko martxoaren 12ko eta 2019ko apirilaren 10eko erabakien laburpena

BDNS (identifikatzailea): 450312

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai:

Xedea

Dirulaguntzak ematea Donemiliagako udalerrian umeen jaiotza, adopzioa edo harreran hartzea dela-eta, udalerria osatzen duten herrietan belaunaldi berritzea ziurtatzeko xedez.

Onuradunak

Umea jaio edo adoptatu aurreko bi urteetan, jarraian, Donemiliagako udalerrian erroldatuta egon diren eta bertan bizi diren aitak, amak, legezko tutoreak edo harrera familiak.

Betekizunak

– 2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean (egun biak barne), Donemiliagako udalerrian jaiotako eta erroldatutako umeak izatea.

– 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean (egun biak barne) Donemiliagako udalerrian erroldatuta dauden adoptatutako edo harreran hartutako umeak izatea.

Laguntzaren eskatzaileak, laguntzaren onuradunak, udalerrian bi urte jarraian eraman behar ditu erroldatuta, umea jaio, adoptatu edo harreran hartu aurretik, eta bai berak bai umeak erroldatuta jarraitu behar du beste bi urtez, gutxienez, jaiotza edo adopzioaren ondoren.

Oinarri arauak

Donemiliagako Udaltzaren 2019ko martxoaren 12ko eta 2019ko apirilaren 10eko bilkuretan onetsiak.

Laguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntza 231.480.001 aurrekontu aplikazioaren kontura emango da. Deialdi honen zuzkidura 1.000,00 euro da. Laguntzaren zenbatekoa 500,00 euro izango da.

Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak eta agiriak Donemiliagako udaletxean aurkeztu behar dira, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara, 2019ko maiatzaren 31 arte.

Erdoña, 2019ko apirilaren 15a

Alkatea

DAVID LOPEZ DE ARBINA RUIZ DE EGUINO